

Aretxagazeta

FELIS BELTRAN DE HEREDIA
ANDRA MARI 07 - 2 EZK
ARETXABALETA

Internet: www.saretxo.es/aretxagazeta
e-mail: aretxagazeta@saretxo.es

Aretxabaleta • 1999ko urriak 7 • 176. zka.



Ehizaren plazerra Atxabaltan



*Irudimenarekin, eskulanak egiteko
kutxak, kajonerak, bandejak,
pertzeroak, komuneko altzariak...
margotu ditzakezu. Eta nahiago izanez
gero, geuk margotuko dizkizugu.*



AZKARATE AROSZTEGIA

ARETXABALETA 943 77 01 24
BERGARA 943 76 47 19

*Ateak, leihoak,
horma armairuak, tarimak
eta parketak*

ARDATZA
Brikolaketa

Masterreka, 4 beheha. Tf.: 943 76 18 93 • BERGARA

OPEL 



*Zazpi leku,
familiarra,
furgoneta bihurtzen azkarrena*

Garaje Talleres Norte, s.l. Zerbitzu ofiziala

Basabe poligonoa A-13 • 20550 ARETXABALETA • Tfnoa: 943 79 62 65/Fax: 943 77 16 20




Ehiztari edota ehiza hitzak zer ekartzen dizu gogora ?

Mariano Otero

(Jubilatua)


Batzuk esango dute animaliak ez direla hil behar, baina ehiza lege barruan eginez gero gustatzen zait. Nik ikututako eskopeta bakarra gerrakoa izan da, eta erreketek bati tiro egiten niolakoan behar bat bota nuen eta pena handia eman zidan.



Patxi Zubizarreta

(Jubilatua)

Ehiztaria naiz. Hemen ez naiz ehizan aritzen, Araban baizik. Bertan daukagu kotoa eta oso zorrotzak izaten dira bertako arauak; bota daitezkeen pieza kopuruari dagokionez eta abar. Niretzat ehiza kirola da.



Mari Altube

(Etxekoandrea)

Ez zait ehiza gustatzen. Niri bizitza gustatzen zait, animalia guztiak, natura orokorrean. Ez nintzateke gai izango ezer hiltzeko. Gainera ez dut inguruan ehiztaririk izan. Hala ere onartu behar dut ehiza lapikoan oso ona dela.



Mariasun Lonbide

(Etxekoandrea)

Ez zait batere gustatzen ehiza kontua. Egia esan nire anaiak ere ehiztariak dira, baina niri ez zait inoiz gustatu. Animaliak hiltze hori ez zait oso egokia iruditzen.



e s k u t i t z a



Euskarari lapurretan (99ko urria)

Aste gutzia Kilometrotara joateko prestatzen. Bidea errazteko eta eroso joateko Loramendik autobusak antolatzen ditu. Jendeak, guztionak diren Euskararen eta Ikastolen aldeko jarrera azaldu nahi eta horretara joateko, 80 pertsonen txartela erosi dute.

Baina igande eguerdia orduko, lapurreta! Ez dugu autobusak ordaintzeko dirurik.

Euskarak batzea lortzen duen apurra ere kendu. Gure hizkuntza lapurren esku jausteko bezain aberatsa al da? Beti esaten da, gutxien duenari kentzen zaiola gehien eta hala izango da itxura denez.

Beharbada euskararen alde egitea baino erabilpen hobea izango zuen diru horrek beste batzuen esku. Hala ere, poztzen gara, baina zertarako ote?

Loramendi Euskara Elkartea

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria

Aretxagazeta aldizkaria. **Argitaratzailea:** Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarte. Durana 11, 151 postakutxatila Aretxabaleta. Tfnoa: 943-79 86 21 Faxa: 943 77 18 54. **Erredakzio-kontseilua:** Gurutze Larrinaga, Koldo Zubizarreta, Aitor Irure, Gotzone Arrese, Gorka Etxabe, Begoña Arenaza, Arrate Arkauz, Aintzane Lasa, Pello Zubizarreta, Arantza Antxia. **Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:** Monika Belastegi eta Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Amaia Berezibar, Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Inprimategia:** Eguzkigraf, Koop. Elk. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. **ISSN:** 1134-2609. **Internet:** www.saretxo.es/aretxagazeta **e-mail:** aretxagazeta@saretxo.es. Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



Aretxagazeta

Oscar Mateok "Villa de Periana" literatur saria jaso berri du

Oscar Mateo 26 urteko atxabal-tarrak, "Villa de Periana, escritor Francisco Díaz Guerra" VIII. literatur lehiaketa irabazi du. Andaluziako Periana herriak antolatutako istorio laburren lehiaketa hau hogeita hamar urtetik beherako gazteei zuzenduta dago eta Oscar Mateo gaztearen "Borges, Cábala, Cinco" kontakizuna aurkeztutako 102 lanen artean aukeratu zuen epaimahaia.

Epainahaiari dagokionez, literatur munduko jende ezagunak osatzen zuten: Andrés Sarriá Muñoz editoreak, Antonio Clavero Muñoz kazetariak, Perianako lan dinamizatzaileak eta lehiaketari izena ematen dion Francisco Díaz Guerra idazleak.

Oskar Mateok esandakoaren arabera, Foru Aldundian izan zuten

lehiaketaren berri, eta saria, 150 mila pezeta, polita iruditu zitzaiola-ko aurkeztu zen.

Bi ipuin bidali zituen eta berak uste ez zuena saritu diote, izan ere, bere ustez "Borges, Cábala, Cinco" saritua "ez baita bidalitako bestea bezain ona".

Iaz ekin zion Oskarrek bere istorioak lehiaketetara bidaltzeari, eta izan duen arrakasta ikusi ostean gogo handiagoz jarraituko duela gaineratu du.

Bederatzi orrialdeko kontakizun hau, lau hilabetetako lanaren fruitua izan da "Borjes, Cábala, Cinco", eta bertan kontatutakoak argumenturik baduen arren, kontatzea oso zaila dela gaineratu du eta osotasunean irakurtzeko irakurri beharra dagoela.

Aurrera begira Gabriel Aresti literatur lehiaketan ere partehartzeko asmoa azaldu du Oscar Mateok, eta Atxabaltako lagun batzuekin batera egiten duen "Gargola" literatur aldizkariko 3. zenbakia amaitu bi asteren buruan argia ikusi dezan.



Aukeratuak dagoeneko auzoalkate berriak

Hilaren 19an auzoetako alkateak izendatzeko hauteskundeak egin ziren. Aretxabaletako bederatzi auzoetako alkateak beraz honakoak izando dira datozen lau urteotan:

- Areantza: Julen Abasolo.
- Galartza: Joaquin Urrutia.
- Arkarazo: Alberto Mondragon.
- Goroeta: Jesus Mari Urkia.
- Apotza Etxebarri: Santi Unanue eta Jose Bengoak boto kopuru bera atera zuten bezain berriz egin behar izan zuten hautaketa. Bigarren bueltan, Santi Unanue izan zen aukeratua..
- Aozaratz: Nazario Meabe.
- Izurieta: Alberto Etxebarria.
- Larrino: Javier Ugarte.
- Oro: Jesus Osinaga.

Lapurreta larunbat gauean Loramendin

Pasa den larunbat gauean ezezagun batzuk Loramendin sartu eta Kilometro tara autobusez joateko salduetako txartelen dirua lapurtu zuten. Lapurrak egoitzara atzekaldea dagoen kristalezko atea apurtuta sartu ziren gauza bera eginez Loramendiko bulegora sartzeko.

LEIBAR
arrandegia
Mitarte Kalea, 1
Tfnoa: 943 77 13 79
ARETXABALETA




MAPFRE
Aseguroak
Errekararren, 3
Tfnoa: 943 77 11 76

GEMES
• Depilazio elektrikoa
• Makilaia permanentea
• Kutisaren garbiketa
Durana, 40-2 ☎ 943 79 99 18
Aretxabaleta


MEMESA
Industri hornidurak
Tfnoa: 943 71 24 11
ARETXABALETA

OSKAR
HARATEGIA
Loramendi, 1
☎ 943 79 71 69

Iber
★ Loteria ★
✿ Paperdenda ✿
Otalora, 2
Tfnoa: 943 79 04 39

Dorleta
taberna
Bezereoen zerbitzura
Loramendi, 8
☎ 943 79 94 15

Egun osoan giro aparta San Migeletan



Bi azoka ikusi ahal izan genituen pasa den larunbatean San Migel jaien barruan: artisauena bata, produktu biologikoena bestea. Produktu naturalei dagokienez, sariketa ere izan zen, eta bertan, Antzuolako Tomas Larrañagak, "Lapatza"k, eraman zuen lehenengo saria, Elgoibarko Pello Rubiok bigarrena eta Aretxabaletako Jose Lonbidek hirugarrena. Xarmaz betetako eguna, beraz, larunbatekoa, jende ugari baserritarrez jantzita zihoala eta giro alai nagusi zela kontuan hartzen badugu batik bat.

Kale giroan eta herri bazkarian umore aparta somatu zen. Hala ere, agian unerik hunkigarriena Aintzane Aizpurua dantzariari egindako omenaldia izan zen. Zalantzarik gabe, ondo merezitako omenaldia, herriko haur eta nagusiei dantzan irakasten eman di-tuen urteengatik.



LASAGABASTER-en

AUKERARIK ONENA

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE TFNOAK.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

100 urteko bainera aurkitu da Bainuetxen

Industrialdearen eraikuntza lanetan eskabadora bat beharrean ari zela Ibarako bainuetxe-ko bainuontzi bat aurkitu dute orain dela hamabost bat egun. Industrialdea Ibarako bainuetxea zegoen horubean eraikiko da, eta eskabadora batek lurra jasotzean bertan lurperatuta aurkitu zuten.

XIX. mende amaierako bainuontzia

Ibarako bainuetxea 1843ko maiatzaren 17an ireki zuten. Eraikuntza aparta omen zen eta bertako osasun zerbitzuak ere bikainak omen ziren. Bertara hurbiltzen zen jendea, azaleko gaixotasun, bronkio eta laringe afekzioak erreuma afekzioak eta beste hainbat gaitz sendatza hurbiltzen zen.

Afekzio hauek guztiak sendatzeko erabiltzen ziren gailuen artean, bainerak ere baziren, orain gutxi industrialdea eraikitze-ko lanetan aurkitu dena kasu. Marmol edo granitozkoak ziren, aurkitu berria granitozkoa da, 1,90 metro luze, 0,75 zabal eta 0,52 altu eta mende

bateko historia du bere gain.


Industrialdea

Industrialdeari dagokionez, uztaila amaiera aldera hasi ziren lanak. Dagoeneko, sasiz garbitu dute industrialdea kokatuko den horubea eta orain, Urkullutik bainuetxera dihoan ubidearen desbideratze lanetan ari dira. Orotara 48 mila metro karratuko lursaila okupatuko duen arren, 15 mila baino ez dira eraikuntzarako erabiliko.

Horrez gain, hogeitabost enpresa inguruk luzatu du bertan kokatzeko eskaria, baina oraindik zein onartu diren ez da jakitera eman.



Goiko argazkian, industrialdeko lanen egoera ikusi daiteke. Behekoan, orain gutxi aurkitu duten Ibarako bainuetxe-ko bainuontzi-etako bat. Argazkian ikusi daitekeen bezala, eskabadorak apurtu egin zuen lanetan ari zela



Kepa Urrak astebeteko "txapeoa"

Esteban Nieto euskal preso hil dela eta Valdemoroko Madrid III espetxean dauden euskal preso politikoek astebeteko "txapeoa" burutuko dute. Txapeo honen helburua, PPK darabilen dispertsio politika eta Madrid III espetxe-ko medikuek Esteban Nietoren eriotzean duten erantzunkizuna salatzea da. Horrez gain, patioko zenbaketetan, enkarteladak egingo dituzte, eta baita kuartel aurrean, bazkal zein afal aurretik ere, hamar minutukoak hauek.



Zubia
Oinetakoak

Poltsak • zapatak • gerrikoak

Mitarte 14 • ☎ 943 79 16 00 ARETXABALETA
Biteri 1 • ☎ 943 79 66 53 ARRASATE

BENGOA
URDAITEGIA

Bertako okelak eta mortzilak

Durana, 9
Tfnoa: 943 79 19 79

PAGALDAI
Opari denda

Durana, 33 ☎ 943 79 10 14
ARETXABALETA

141 ikaslek ekin diote ikasturteari Leintz Udal Euskaltegian

Hasi du dagoeneko Leintz Udal Euskaltegiak ikasturte berria. 141 ikaslek eman du izena eta baita eskolak hartzen hasi ere.

Aipatu 141 ikasleak, astean hamar eta sei orduko eskolak jasoko dituzte eta hamabost taldetan daude banatuta. Mailei dagokienez, 1. 2. 4. 7. eta 9. urratsak ari dira jorratzen izena emandako ikasle hauek. Horrez guztiaz gain, Institutuko irakasleek Euskaltzaindiaren arauak eta idazkera lantzeko Sakontze talde bat ere sortu da. Honekin guztiarekin eta oraindik guztiz eratu ez bada ere EGAKo talde bat ere aurrikusita dute euskaltegian.

Irakasleen kasuan, sei irakasle ari dira hasi berri den 1999/00 ikasturtean klase ematen Leintz Udal Euskaltegian.



141 ikasle eta sei irakasle ekin diote ikasturte berriari Leintz Udal Euskaltegian



Jubilatuena eguna beti bezain alai

Lagun ugari bildu ziren pasa den igandean urtero legez udalak antolatzen duen Jubilatuen egunean. Ohi-tura den gisa polikiroldegian egindako bazkarira 257 jubilatu hurbildu ziren eta ez zuten ez nolana hiko bazkaria izan; frito, bildotsa txilindron erara eta pastel txikiz osatutako menua goxo-goxoa zegoela esan zuten. Aurtengo gizon adintsuenaren saria, pijama eta manta bat, Julian Elorza Jausorok eraman du eta emakume edadetuenarena, soineko bat Juana Arranzek. Horrez gain, udaletxeak jubilatu bakoitzari opari bat egin zion, labana gizonezkoei eta abanikoa emakumezkoei eta kutxak partxis bana ere eman zien.

Lasai

Mirian Mantec
MASAJISTA

Lezama merkatal zentrua
Santa Kurtz, 24 etxabea
20550 Aretxabaleta

Masaje terapeutikoa
Posturen ezterketa eta
egokitzean
diplomatu

Tfnoa: 943 77 04 34

HAURRAK

Umeendako moda

Lezama merkatal zentrua, 15
ARETXABALETA



Mobiliario ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Martín

RELOJERIA - BITXITEGIA

Bere bezeroen zerbitzura

Mitarte, 16
Tfnoa: 943 79 01 72

Okindegia - Gozologia

Aretxabaleta
Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19
Mitarte, 1 - ☎ 943 77 00 81
Aretxabaleta
Bertako okina

Etxe berriak nikaraguarrentzat Hiruatxen laguntzaz

Mitch hurakanak sortutako galarak direla eta, Hiruatx Aretxabaletako Gobernu Kanpoko Erakundeak, laguntza luzatu dio Nikaraguako herrialdeari.

Nikaraguari eskainitako laguntza, APC, Nikaragua bertako GKEak bideratu du eta hondamendia gertatu zenetik pasa diren hilabetee-tan egindako aurrerapenak eman ditu jakitera Hiruatxek.

Mitch hurakanaren ondorioz, hainbat familia etxerik gabe geratu zen, eta ACPren helburua Hiruatxen laguntzaz, etxe hauek berreraikitzea izan da beste gauza batzuen artean.

Honekin guztiarekin, berreraikuntza lanen kudeaketan aritu direnak kaltetutako 541 familietako ordezkariak osatutako batzordeak izan dira. Honela, 28 etxe berri eraiki dituzte eta behar gorrian zeuden 29 familientzako eraikin bat erosi. Komunitateen antolakuntzan eta nekazariei laguntzen ere aritu da ACP.

Berreraikuntza lan hauek orain-

Hau bezalako etxeak eraiki dira Hiruatxen laguntzarekin Nikaraguan. Orotara 28 etxe berri eraiki dira eta bakoitzean familia bat biziko da



txu amaitu dira, irailaren amaiera aldera, eta galera guztien erdian, zera ikusi du ACPk: nikaraguarrek Mitch hurakanaren aurretik zituzten bizi baldintzak hobetzeko parada eta baita urteetan bizi izan duten egoera latza gainditzeko aukera ere.

Eraikitako etxeak, familia baten-tzat baino ez dira eta familia bakoitzak berea eraiki du. Proiektuak, bere gain, eskulan kualifikatuaren,

hau da, iturgin, arotz eta abarren kosteak hartu ditu.

Bien bitartean, Mitch hurakana dela eta, Nikaraguan bertan atzeratu zen Condegar proiektua hastear dago. Izan ere, ACP erakunde herrikoia proiektua hasteko egoeran aurkitzen da eta Hiruatxek proiektu honi zuzendutako 4 milioi pezetetatik 2 milioi eta erdi bidali ditu dagoeneko Nikaraguara.



Portasolgo pasealekua ia bukatuta

Portasol auzoan, erreka ertzean egiten ari diren pasealekua hamabost egunetan guztiz bukatuta egotea aurreikusten du udalak. Dagoeneko ibaira ematen duen harrizko hesia bukatua dago eta farolak ere ipini dituzte. Farola hauek herriko gainontzeko kaleetan daudenaren antzekoak dira eta orotara hamalau jarri dira. Pasealekuko lanak amaitzeko harrizko hesiaren gaineko eskubandak jartzea baino ez da falta. Horrez gain, lorategiak ere egin dira, eta belarra hazi eta gero lora edota zuhaixkak landatuko dira bertan.

Maritxu
Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tfnoa: 943 79 23 53
ARETXABALETA

MAITE
ileapaindegia

Sarasate, ☎ 943 79 59 05
ARETXABALETA

“ARINSA”


Aretxabaletako industrialdea S.A.

Basabe poligonoa “EO-10”
Tfnoa: 943 79 62 80
ARETXABALETA

Juan Antonio Martinez de Agirre

18 urte udaletxeko diruak zenbatzen

1981. urtean hasi zen Juan Antonio Martinez de Agirre udaletxean kontuhartzaile lanetan. Ekonomikas ikasketak egin eta udaletxeko kontuak eramaten hasi zenetik urte batzuk pasatu dira. Gaur egun 42 urte ditu, eta bere lan jardunari buruzko hainbat gora behera kontatu dizkigu.



- Zein da kontuhartzaileak egiten duen lana?

-Udaletxeko kudeaketa lanak, hau da, kontabilitatea eraman. Udaletxe, zaharren egoitza eta bi urtetik bi urtera euskaltegiko kontabilitatea eraman. Kontabilitatea esaten dudanean zentzu zabalenean ari naiz, hau da, aurrekontuen kontabilitatea eta patrimoniala.

Horrez gain ordenantza fiskalen prestateta ere hor dago. Errekaudazioa nola kudeatu eta nola kobratu ere lantzen dugu, kontratazioak ere kontuhartzaileak eramaten ditu... oso arlo zabala da.

- Prestatu dituzue jada aurtengo aurrekontuak?

- Horretan dihardugu. Aurtengo asmoa, urtarrilaren 1erako onartuta izatea da. Oraindik zirriborroa baino ez dugu, baina aste honetan bertan zinegotzietan aurkeztu eta zer proposatzen duten ikusi behar da.

- Inbertsioei dagokienez zer dago aurrikusita?

- 200 milioi inguru daude inbertsionarako, baina diru hau zertan erabili politikoen erabakia da, eta legealdi bakoitzean egin nahi dutenaren arabarera banatzen da diru hori. Nire ustez, hiru arlo nagusi daude inbertsionarako gauden legegaldi honetan: batetik zine aretoa, hau da ea zein erabilera mota eman eraikun horri, bestetik polikiroldegi aurreko horubea

zertarako erabiliko den eta azkenik etxebizitza sozialak. Dena den hau nire iritzia baino ez da, eta agian politikoek beste zerbait pentsatuko dute.

Horrez gain, kolektorearen lanak ere amaitzeko daude eta aurreko lege-gintzaldian erositako lursail batzuen ga-

“Oraindik guztiz zehaztu gabe badugu ere, ziurrenik ordenantza fiskalek %2ko igoera izango dute”

tik oraindik 42 milioi ordaintzeko daudela ere aurrikusi behar da.

- Nork osatzen du Ogasun batzorde berria?

- Lehendakaria Iñaki Uribebarria da, eta alkateak ere, Anjel Bergaretxek partehartzen du. Printzipioz hauek biek osatzen dute, PSOEko Iñaki Pierrugues eta PPko Maria Rosario Arrue ere batzordean daude baina ez dira etortzen.

Une honetan ordenantzekin ari gara; datorren urtean kobratu behar denaren inguruan hain zuzen.

- Ordenantzak aipatu dituzu, zein igoera izango dute?

- %2a uste dut. Horretan ari gara orain, hala ere, oraindik ez dakiagu zehazki zenbateko igoera izango duten. Batzuk dena den, ez dira ikutuko, obren gaineko zergak eta gainbalioa kasu.

- Udaletxean bete egiten dira aurrekontuak orokorrean ala desbiaziorik izaten dute?

- Bi gauza izan behar dira kontuan, batetik gastu arruntak eta bestetik kapital gastuak. Azken hauen barruan, inbertsioak eta subentzioak daude. Inbertsioak normalean luzatu egiten dira eta hurrengo aurrekontuan sartzen dira, baina gainontzekoak betetzen dira. Iazko aurrekontutik, kasu, 155 milioi sartu dira aurtengoan.

- Zer nolako eragina izaten du kontuhartzailearengan lau urtero udalbatza aldatzeak?

- Partidak, kontzeptuak, sarrera eta irteera balantzeak... azaldu egin behar zaizkie, eta batez ere gastuetan eraman beharreko pausuak ondo azaldu behar zaizkie. Ulertzeko zailena egiten zaiena, partidarik onartuta ez badago dirurik gastatu ezina da. Zerbaitetan gastatu behar dutela pentsatzen dute ulertu gabe partidetan onartuta ez badago ezin dela.

Enpresek orokorrean darabilten sistematik aldentzen den sistema erabiltzen da eta udaletxera sartzen diren politiko berriak ez daude horretara ohituta. Enpresa batean zure diruarekin nahi duzuna egin dezakezu, baina udaletxean aurrekontua onartuta egon behar da eta hor zehazki partida bat izan behar du egin nahi duzun horrek.

- Langile berri bat hartzekotan zaudete departamentuan?

- Arantxa Abasolo joan egin da eta Pilar Biain kontratatu zen. Hau, hala ere, behin behineko langilea da, izan ere, abenduan iragarriko da lanpostua eta lehiaketa publiko bidez bat aukeratu. Dena den, agian langile bat baino gehiago ere kontratatu beharko dira.



Kilometroak ala kilolitroak?

**“Azken urteotan
Kilometroak izan
duen bilakaerak
erreflexio bat merezi
duela uste dut. Hau
al da euskarari
laguntzea? Jai honek
zertan bukatuko du
azkenean?”**

Urriak 3, Oreretan Kilometroak 99. “Bizi kmk-99” zioen aurtengo kilometroaren leloak, kilokoloretan gainera.

Milaurtekoaren amaierako hau berezia zen bestalde, Euskal Herrikoarekin batera Kilometroak mundu zabalera hedatu baita. Lehen aldiz izango da Ipar eta Hego Amerikan; Estatu Batuetako Idahon eta Argentinako Arrecifesen.

Kilometro dexente eginak ditugu, beraz, 1977an Beasainen hasi ginenetik eta orain urrutirago goaz gainera. Baina zoritxarrez, ez dira kilometroak, aurrera egin ditugun bakarrak. Azken urteotan, kilolitroak dira nabari gorantz egin dutenak. Goizeko lehenengo orduetan, kilolitrona beteak ikusten dira kuadrila gehienek eskuetan (auskalo non erosiak). Ibilbidea alde batera utzi eta kilolitrona hauek uzten ikusten dira gazteak, bazter guztietan eguerdirako. Arratsalderako, zutik egon ezineko kilomozkorrak han hemenka, gurutze gorria haruntza eta

honuntza, gazteak lurrean bueltaka, kilolitrona hutsak zakar ontzian ez beste edozein tokitan eta hori gutxi balitz, zuhaitzak, botilak eta harra-patzen duten guztia apurtzea, jolasa bihurtzen da beraientzat.

Azken urteotan Kilometroak izan duten bilakaerak erreflexio bat merezi dutela uste dut. Hau al da ikas-tolei, euskarari laguntzea? Jai honek zertan bukatuko du azkenean?

Beldur naiz, gerora 25 urtetik beherakoak bakarrik joango ote diren, nagusiagoek ez baitute giro hori gogoko.

Aurtengoz, kilozaparrada eta kilomozkorretan definituko nuke eguna eta gaitz erdi, mozkor hori, euskaraz harrapatua izan bada.

Arrate Arkauz

**EXPRESS
AKEITEGIA**

Santa Kurtz, 16
Tfnoa: 943 79 23 43

DOIKALSE

**Elektroerosio
lanak**

Basabe Poligonoa C-1-1
Aretxabaleta
Tfno: 943 79 82 44



ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tfnoa: 943 79 01 51

Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:
*Lyonel
Arquero*

Dekorazioa:
*Soraya
Arquero*

Uso eta oilagorrak harrapakin nagusiak

Ehiztari dexente dugu Atxabaltan eta harrapakin nagusienak oilagorra eta usoa, nahiz eta beste batzuk ere badiren. Oilagorra udazken eta negu bitartean izaten den bezala, usoa ehizatzeke beda gainean dugun asteburuan irekiko da. Uso pasan

edota oilagorretan aritzea ezberdina da oso, eta ehiztarien artean prestijio handiagoa du oilagorretan jarduten duenak usoa botatzen duenak baino. Uso pasan punteria behar da, baina oilagorretan txakurra eta honekiko elkarulertze sakona.

Bi ehiza mota dira bereziki gure inguruan praktikatzen direnak, uso pasia eta oilagorra. Uso pasari dagokionez, Pilarikan, hau da, datorren astean irekiko da beda, pasia amaitu artean, azaro amaiera aldera hain zuzen ere. Oilagorretan aritzeko, bestalde, epealdia udazkenean hasi eta negura bitartean izaten da.

Uso pasia eta oilagorraz gain, badira ehizatzen diren beste hainbat animalia, hegaztietan eperra, galeperra, zozoa, birigarroa... eta gaintontzekoetan erbia edota basurdea kasu. Hala ere, Aretxabaletako ehiztariak batez ere uso pasan eta oilagorretan aritzen dira, nahiz eta bestelakorik botatzen duen ehiztari-rik ere badagoen.

Oilagorretan aritzeak prestijioa

Usoa eta oilagorra Aretxabaletako ehiztariak gehien botatzen dutena dela esanda, biak oso ezberdinak direla ere gehitu behar da; bai ehizatzeke moduagatik, baita ehiztariari bietako bakoitzak ematen dion satisfakzioagatik ere.

Oilagorretan aritzeak adibidez prestijio handia du hemen, gure artean, baita uso pasiarekin alderatuz ere, ondo ehizatzeke faktore asko izan behar baitira kontuan eta ehiztariak gain, uso pasan ez bezala txakurra ezinbestekoa baita.

Oilagorretan aritzen diren ehiz-

Setter ingelesa da oilagorretan aritzen diren ehiztariak nahiago izaten duten txakurra. Oso usaimen fina du eta basoan zein mendian orduak eman ditzake beste arraza batzuk baino gutxiago nekatuz



tari batzuren arabera, txakurra da ehiza honetan garrantzia handiena duen elementua; hori dela eta, oso garrantzitsua da txakurra ondo hezitzea.

Setter ingelesa

Oilagorretarako gehien erabiltzen den txakur arraza setter ingelesa da. Txakur mota honek usaimena oso garatua du, ezaugarri ezin aproposagoa oilagorrek ehizatzeke. Horez gain, ez da erraz nekatzen, mendian edota basoan ibilaldi luzeak egin ditzake eta ez die beldurrik oilagorren gordeleku diren paraje lohiei.

Honekin guztiarekin, eta txakurra

izatean ehiztariari oilagorren gordelekua adierazten diona, setter ingelesak parada egokia du eta behin oilagorra lokalizatu ostean, ez da ehiztariak esan artean mugituko.

Ezaugarri hauekin guztiarekin, oilagorretan aritzen diren ehiztariak nahiago izaten duten txakurra da, nahiz eta besterik ere badagoen.

Setterak berezkoa badu ere ehizarako grina, espreski oilagorretan aritzeko zenbait gauza irakatsi behar zaizkio, eta irakaskuntza prozesu honetan, txakur eta ehiztariaren konfiantza eta elkarrezagutza handituz joaten dira, ehiza garairako ezinbeteko

izango den elkarrezagutza.

Oilagorrek azpi garbiak behar dituen hegaztia den arren, gordetzeko orduan toki lohiagoak aukeratzeko ditu, hori dela eta, harizti, pinudi, pagadi edota artadi artean izkutatzen da.

Honekin guztiarekin, eta horren paraje itxietan egoten denez, txakurra ezinbestekoa da, honek usaime-naz aurkitu dezan eta ondoren hegaztia ikaratu gabe bere gordelekua ehiztariari esan diezaion; hemen datza setter ingelesaren egokitasuna, eta noski, txakurra ondo irakatsia izatearen garrantzia.

Hainbat ehiztarik esandakoaren arabera, oilagorretan aritzeak satisfakzio handia ematen du. Ez da asko botatzen, baina hori ez da ga-

Oilagorretan txakurra ezinbestekoa da eta inguruetakoa ehiztariaren artean prestijio ona du ehiza honek

rrantzitsuena, ehizatzen diren oilagorrek baino, mendian ibili eta txakurraren lana ikustea garrantzi-

tsuagoak baitira.

Ehizarako beharrezkoak

Eskopeta, kartutxoak eta txakurra ezinbestekoa dira oilagorretan aritzeko. Usoaren kasuan, aldiz, txakurra ez da beharrezkoa. Hiru elementu hauek baino ez dira behar ehizan egiteko. Horrez gain, noski, badira aukeran beste hainbat elementu aipatutako hiruren osagarri direnak. Hala ere, hauetako askok zaletasuna garestitu baino ez dute egiten eta galdetutako ehiztari guztiek esandakoaren arabera, eurak eskopeta, munizioa eta txa-



Xabier Urzelai
Oilagor ehiztaria

• Nondik datorkizu zaletasuna?

Oso berandu hasi nintzen ehizan, 27 urterekin. Hasieran, lagun batekin joaten nintzen, baina oso gutxitan, baimenik ere ez nuen. Gerora, hala ere, atera egin nuen, oilagorretan ibiltzen zen talde batean sartu eta gaur artean.

• Zer ehizatzen duzu?

Lehenago usopasan ere egon nintzen, baina ez du grazia handirik eta orain soilik oilagorretan jarduten dut.

• Non aritzen zara?

Alabita inguruan ibiltzen gara, ez gara kanpora joaten eta esan bezala beti oilagorretan, usopasa ez bada parran tokatzen ez dugu horretan jarduten.

• Zein enkantu aurkitzen diozu ehizari?

Norberak hartzen duen konpromezua da, azken batean zure buruari exijentzia batzuk jartzen dizkiozu, igandean goizeko seietan jaikitzea adibidez. Horrez gain, kirol asko egiten da, oilagorretan asko ibili beharra baitago. Niretzat ehiza bera baino politagoa da egiten den kirola. Gainera, urte osoan zehar forman egotea eskatzen du.

• Orduan zer da garrantzitsuagoa, gustora aritzea ala harrapatzen den oilagor kopurua?

Zalantzarik gabe gustora ibiltzea, txakurraren lana ikusi... Gehienetan, gainera, bape barik etortzen gara,

ez da asko harrapatzen den ehiza mota. Pieza asko ehizatu nahi izango bagenitu, koto pribatu batera joango ginatke.

• Zer eskatzen diozu txakurrari?

Bi txakur ditut. Setter arrazakoak. Txakurrak entzuten jakin behar du, esandakoari jaramon egin behar dio. Txakurrak, baina, berak erakusten du ehizan nola egin. Txakurra oilagorretan dagoen gauzarik garrantzitsuena da: berak esaten du non dagoen oilagorra. Eta txakurrari irakasteko orduan, bata bestearengandik ikasten dute. Oilagorretara eramanez gero, berehala ikasten dute. Hala ere, hasieran, txakurra ehizakoa bada, birigarro, zozo... denaren atzetik ibiliko da, baina oilagorra ez den besteri ez bazaio tiro egiten txakurrak ikasi egiten du soilik oilagorretan aritu behar dela. Birigarro eta zozoak botako bagenitu alperrik galduko genuke txakurra. Pieza bota ostean txakurrak hartu eta norberarengana ekartzen duenean hartzen duen poza ere oso polita da.

• Txakurraz gain, zer gehiago behar da ehizan egiteko?

Kartutxera eta eskopeta. Hiru hauek badituzu nahikoa da ehizan joateko. Bestela janzerari dagokionez, mendira joatekoa eramaten dut, mendirako botak izan ezik, pisua dutelako eta lokarriak kateatu egiten direlako sasiartetan, izan ere, oilagorrek sasiarte eta honelako tokietan gordetzeko joera dute.


• Zenbaiteraino du garrantzia ehizak zuretzat?

Egiten dudan kirolarengatik izango ez balitz agian utzi egingo nuke. Eta txakurrak ere bi izan beharrean bakarria izango nuke. Gustatzen zait eta gustora aritzen naiz, baina utzi beharko banu ez litzaidake asko kostatuko. Lehen esan bezala ehizak kirola egitera behartzen nau, mendian asko ibiltzera eta hori da gehien gustatzen zaidana.

kurra baino ez dute eramaten. Gainerakoa, mendi buelta bat egiteko erabiltzen duten arropa bera.


Ehizan beharrezko diren agiriak

Ekipoaz gain, bada ere ehizan aritu nahi duenak beharrezkoa duen dokumentazioa. Batetik, ehizatuko duen autonomi erkidegoko baimena (autonomi erkidego bat baino gehiagotan ehizatu behar bada ere, bakoitzekoa behar izaten da). Bes-



**Gure inguruan
Degurixa eta Alabita
usoa botatzeko
oso leku
tipikoak dira**

tetik, erresponsabilitate zibileko segurua ere beharrezkoa da. Hauek biak urtero berriztu beharreko agiriak dira. Horrez gain, bost urtean behin berrizten den arma baimena eta erabiliko den arma bakoitzaren dokumentazioa ere gainean eraman beharko dira.



Uso pasia

Uso pasia asteburu honetan irekiko da, izan ere, urtero Pilari-karen jaiarekin batera izaten da

usoaren ehizarako garaia.

Oilagorrotan aritzeko txakurra ezinbestekoa den bezala, usoa botatzeko ez. Honetarako punteria da ezinbestekoa. Aretxabaleta inguruan ere badira leku tipikoak usopasarako, Degurixa eta Alabita hegoekialdeko haizeak jotzen duenean batez ere, hau da, haizea Nafarroatik datorrenean batez ere. Azken batean, geure bailara ez dago usoa emigratzeko erabiltzen duen ibilbidearen barruan, eta eguratsean ez augarri berezi batzuk eman behar dira, hegoekialdeko haizea izatea adibidez.

Honekin guztiarekin, eta aipatu bezala gure inguru hau usoaren pase naturala ez izatean, uso pasan

gehiago izaten dira urte txarrak onak baino, esan bezala baldintza bereziak behar izaten baitira usoa hemendik pasatzeko.

Lehen esan bezala Aretxabaletako ehiztari gehienak uso eta oi-

**Usoarendako gehiago
daude urte txarrak
onak baino, inguru
hau ez delako pase
naturala**

lagorretan aritzen badira ere, bada besterik botatzen duenik. Honez gain, Alabita, Degurixa eta inguruko mendietan aritu beharrean koto pribatuetan ehizatzen duenik ere badago. Hala ere, argi dagoena zera da; Atxabaltan ehiza gustoko duten gehienek uso edo oilagorretan botatzen dituztela, nahiz eta oilagorretan aritzeak beste xarma bat duen.





Gipuzkoako 2. mailan arituko da aurten Arlutz B xake taldea

Xake liga hasteko gertu

Urriaren 16an hasiko dute liga Arlutz B xake taldekoek. Aurten Gipuzkoako 2. mailan arituko dira. Iaz 1go mailako igoera promozioa jokatu zuten eta aurten 2. mailan arituko da talde atxabaltarra. Maila aldaketa igarriko dute taldekideek, izan ere, maila honetan adin nagusiagoko xake jokalaria aritzen dira eta esperientzia gehiago dutenak. Hori kontuan izanik, herriko Arlutz B taldeak maila berrian mantentzea izango du helburu.

Taldea Andoni Carrasco, Kepa Balenziaga, Aitor Bote, Alain Sanz, Joseba Altube eta Esteban

Romerok osatutakoa da. Taldetxo honek datorren urriaren 16an ekingo dio, beraz, xake ligari. Bestalde, Arlutz A taldea aurten Euskal Ligan arituko da baina hauek azaro aldera hasiko dute xake denboraldia.

Mutrikun atxabaltarrak nagusi

Irailaren 25ean Euskal Presoak Euskal Herrira plataformak Mutrikun antolatu zuen xake txapelketan hartu zuten parte Andoni eta Fran Migel eta Aitor Alkaidek. Hirurak fin ibili ziren. Andoni lehena izan zen, Fran bigarrena eta Aitor Alkaide laugarrena. Zorionak hirurentzat.

Squash txapelketa

Urtero moduan kiroleak squash txapelketa antolatu du 16 urtetik gorakoentzat. Urriaren 16an hasi eta abendurarte luzatuko da. Izen ematea kiroletxean egin daiteke, horretarako abonatuak 1.500 pta ordaindu beharko dute eta 2.000 pta abonatuak ez direnek. Esan beharra dago, aipatutako txapelketa Deba Garaiko zirkuitorako puntuagarria dela.



Pilotan partidu bakarra irabazi

Gipuzkoako klub arteko hirugarren pilota ihardunaldia jokatu zen joan den asteburuan. Herriko pilotariak ez ziren batere ondo ibili, izan ere, jokaturako sei partiduetatik bat bakarra irabazi zuten. Irabazitako partidu bakar horretan, gainera, herriko neska bat aritu zen, Oihana Mata. Mata-Altube bikoteak hernanriarren aurka 6-22 nagusitzea lortu zuten.

ERREKABARREN MERKATAL ZENTRUA

- JUANTXO URDAITEGIA 943 79 75 42
- MARI KARMEN OINETAKO DENDA 943 79 59 85
- IRUDI ILEAPAINDEGIA 943 79 80 90
- MIREIA ARRAINDEGIA 943 79 31 59
- LEINTZ-ROSI 943 79 78 63
- ERREKABARREN FRUITATEGIA 943 79 96 43

Izozkitekiki-Gozotegia
IZOZKITEGI

Otalora, 11
Tfnoa: 943 79 93 58
ARETXABAETA

IZOTZ
Taberna

Mitarre, 16 • Tfnoa: 79 73 65
Aretxabaeta



Zenbaki

Basabe
Industrialdea C Pab.
Aretxabaeta

Tfnoak: 943 71 21 12
943 71 22 68

Aholkularitza

Iñaki Ceciaga

Preferenteko entrenatzailea

Arrasatearra da baina erdi atxabaltartua dagoela esan daiteke, egunaren ia gehiengoa hemen pasatzen baitu. Coprecin lan egiten du eta horrez gain, UDAko lehen taldea entrenatzen du. Entrenatzaile gogorra ez dela aitortu digu berak, baina bai bere buruarekin zorrotza. Horrez gain, entrenatzaile lanak psikologo izatea ere eskatzen duela gehitu du Iñaki Ceciagak.

• **Nola bukatu zen iazko denboraldia eta nola hasi duzue berria?**


Iazko denboraldian taldea berria zen niretzat eta hasiera kaskarra izan genuen. Bukaera aldera, berriz, emaitza onak lortzen hasi ginen eta nahiko ondo bukatu genuen, 6. postuan. Aurten, berriz, denboraldia nahiko ondo hasi da guretzat, kanpoan irabazi egin dugu eta etxean berdindu eta azken partidua galdu. Aurrerantzean etxeko partidua irabazi behar ditugu.

• **Futbol jokalaria izandakoa zara eta orain UDAko entrenatzaile.**

Bai, Mondran jubeniletan eta erregionalean jokalaria izan nintzen soldaduzkara joan aurretik. Urte batzuetara entrenatzaile lanari ekin nion Arrasaten bertan. Geroztik hainbat taldetako entrenatzaile izan naiz, UDAn ere bat baino gehiagotan. Guztira Aretxabaletako taldean bost urte eta erdi egin ditut.

• **Aurtengo taldea nola ikusten duzu?**

Hamazazpi jokalaria dauzkat preferenteko fitxekin. Ekipo txikia izango da agian, baina nik uste dut hori positiboa dela, horrela erregionaleko jokalariek aukera gehiago izango baitituzte goian jokatzeko. Emaitza positiboak lortzeko plantila



*“Sarritan
entrenatzaileak
psikologo lana
egin behar
izaten du”*

polita daukadala uste dut.

• **Taldea entrenatzea eta partidua irabaztea baino zeozer gehiago da entrenatzaile lana?**

Bai, entrenatzaile karneta ateratzeari alderdi fisikoa, taktikoa, teknika eta kirol medikuntza ikasten da. Baina batzuetan entrenatzaileak psikologo lana egin behar izaten du. Irabazten dugunean ez da komeni gehiegi aztoratzea eta galtzen dugunean deprimitzea ere ez. Oreka bilatu behar da. Sarritan jokalaria animatzea entrenatzaile baten lan oso garrantzitsua da.

• **Satisfazioa ala sakrifizioa ematen du gehiago horrelako lan batek?**

Nik argi daukat sakrifizioa gehiago dela. Balantzan gauza positi-

boak eta negatiboak jarriz gero, niretzako pisu gehiago negatiboak izaten dute. Adibidez, galdutako partiduek pisu handiagoa dute irabazitakoek baino. Dena dela, satisfazioak ere asko dira, bestela ez nintzateke hemen egongo. Hala ere, futbol denboraldia gogorra egiten da eta guztiok zuzendaritzak, jokariok eta entrenatzaileok hauts eginda bukatzen dugu.

• **Entrenatzaile gogorra zara?**

Ez, inondik ere ez. Nik beti pentsatu izan dut entrenatzaile bat ni baino gogorragoa izan behar dela. Dena dela, maila honetan gauza bat garbi izan behar da. Jokalariak ere pertsonak direla eta jokalariekin tratu ona izatea asko baloratzen dut nik. Askotan gogorra izateaz bakarrik ez da partidua irabaztea lortzen.

• **Presio handia jasaten du zu bezalako entrenatzaile batek?**

Zuzendaritza aldetik oso pozik nago, laguntasun handia eskaintzen didate. Ni neu naiz neure buruarekin oso exigentea. Zaletuen aldetik, berriz, betiko kontua: irabaziz gero ona zara eta galduz gero txarra. Baina hori garbi izan behar duzu hasieratik.

• **Denboraldia ondo hasita gero, zein da aurtengo helburua?**

Iaz seigarren bukatu genuen. Aurten garbi dago hortik gora gelditu behar garela. Lehena gelditzea zaila da baina ahaleginak egingo ditugu ahalik eta goren gelditzeko.

• **Fitok iazko elkarrizketa batean bi urte barru UDA hirugarren mailara igoko zela esan zuen.**

Fito munduko delegaturik onena da eta gure taldean lan garrantzitsua egiten du. Eta Fitok hori esaten badu lortu egin beharko da.

Animalien Nazioarteko Eguna

Urriak 4

Astelehen hau aukeratu zuen norbaitek Animalien Nazioarteko Eguna izateko, inor ohartu ez bazen ere, baina okerrena da gainerako nazioarteko egun guztiak bezala, honek ere ez duela ezer aldatu.

Ez dago baina ezer aldatzekorik guk ez baitiegu animaliei ezer zor esan du batek, Nik gainera jaten ematen diet gaineratu du leiho alboan eserita dagoenak.

Esaldi hauek ez dute ezkutatu baino egiten animaliekiko erakusten dugun mesprezu eta errespetu falta itzela, eta beraien sufrimenduaz gozatzera iristen gara. Gure herrietako jaietan bertan ugariak dira animalien torturan oinarrituriko "tradizioak". Zezenak, oilarrak, antzarrak eta beste hainbatek majo kobratzen dute gure gozamenerako. "Festa nazionala" ere hor dago honen guztiaren erakusgarri; odola, garraisiak, mina, ... a ze plazerra!!

Eta orgasmo horretan funtsezkoena ahazten dugu, alegia, gu geu ere animaliak garela, ilea galdu dugun tximinoak, besterik gabe.

Zuhaitzetan bizi zen tximu bati lurre-ra jaitsi eta zutitzea bururatu zitzaionetik bost milioi urte bakarrik pa-

Gure herrietako jaietan bertan ugariak dira animalien torturan oinarrituriko "tradizioak". Zezenak, oilarrak, antzarrak, ahariak eta beste hainbatek majo kobratzen dute gure gozamenerako.



satu dira, planetaren historian doministiku bat baino ez, eta denbora tarte honetan jainkoak berak ere pentsa ezin zezakeen mugak gainditu ditugu; lurreko habitat guztiak kolonizatu ditugu, munduari biraka dabilen burdinezko kaxa batean ere bizi gaitezke eta kapaz gara momentu honetan telefono bat hartu eta Australian da goen pertsona batekin hitzegiteko. Baina era berean, lur, aire eta urak kutsatu ditugu, animaliak basotik atera eta kaiolatan sartzen ditugu, eta mundua erdi hiltzeko gaitasuna daukaten bonbak eraiki ditugu. Logikoa

al da? Naturala al da? Hiru hamarkada joan dira Walt Whitman-ek zera idatzi zuenetik:

*Abereen artean biziko nintzateke (...)
Asegaberik edo ezertaz jabetu nahirik grinaz erotzen denik ez dago bat ere,
ez eta beste baten aurrean belaunikatzen denik
(ezta duela milaka urte bizi ziren bere kidekoen aurrean ere)*

Mikel Arroiabe


BEIRALAN



- ◆ Komunerako altzari eta manparak
- ◆ Ispiludun armairu aurrealdeak
- ◆ Beirate artistikoak
- ◆ Salarako mahaiak

KRISTALDEGIA Herriko plaza, 8 behea
☎ 943 79 81 78 ARETXABALETAK

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



kutxa *gizarte-ekintza*

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK



URKULU, S.L.

Mitarte, 23 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 79 96 66
Fax: 943 77 10 33

IRIARTE



Umeen denda

Durana, 8 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 79 10 96



- BILTEGI HOZKAILUA
- HARAGI PRODUKTOAK
- INDI OILARRA ZATITUTA
- UNTXIAK
- TXERRIKIAK
- IZOZTUAK
- BASERRIKO OILASKOAK

Basabe Poligonoa A-15
☎ 943 79 34 28 • Faxe: 943 79 34 28



Alkar, 60. hamarkadako otxotea

arai batean otxoteek arrakasta handia izan zuten gure bailarako zenbait herritan. Aretxabaletan ere izan genuen ochote bat, Alkar hain zuzen ere. 1964 edo 1965. urtean sortu zen Alkar, otxoteek gorakada nabarmena jasandako unean, hala ere, handik urte gutxira behera egin zuten mota honetako formazioek eta 1970. urtean desagertu egin zen.

Arrasate, Deba, Eibar, Eskoriatza, Oñati eta beste hainbat herritan abestu zuten eta baita lehiaketetan parte hartu ere. 1966. urtean esaterako, bigarren saria lortu zuten lehiaketa batean Zarauzko "Oleskariak" otxotearen atzetik. Beste behin ere, beste bigarren postu bat eskuratu zuten Oñatiko "Irrintzi" taldea izanik lehenengo.

Goiko lerroan eta ezkerretik eskumara: **Deunoro Bengoa**, **Iñaki Uribetxebarria**, **Paulo Gastañaga**, **Juan Luis Izagirre** (zuzendaria) eta **Angel Barandiaran** (Aretxabaletako Abesbatzako zuzendaria).

Beheko lerroan: **Roberto Urreta**, **Joxe Bengoa**, **Leonardo Zubiria**, **Pedro Mari Zubizarreta** eta **Alberto Uribetxebarria**.

Argazkia eta informazioa: Alberto Uribetxebarria

OSKAR GARAJEA

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 943 79 98 74
ARETXABALETA

ARBULO HARATEGIA

Santa Kurtz, 5
Tfnoa: 943 79 02 24
ARETXABALETA

Etxabe harategia

Durana 4
☎ 943 79 16 61

San Migel erretegia

Apotza auzoa, 23
Eskoriatza • 943 71 48 71

LANA

- ◆ **Zerbitzari** euskalduna behar da. Tfnoa: 945 44 50 86.
- ◆ **Emakume** bat behar da etxeko lanak egin eta umea zaintzeko. Tfnoa: 943 79 37 03 (19:00etatik aurrera).
- ◆ Neska prest zapatu eta domeketan lan egiteko. Tfnoa: 943 79 03 37.



Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu, deitu 943 79 86 21 telefonora edo 943 77 18 54 erantzungailura. Dohainik da.

- ◆ Pastor Aleman txakurkumeak salgai. Pedigriarekin. Tfnoa: 943 85 32 44 edota 696057346.
- ◆ Gordetzeko lekua falta dela eta, "Chaman" piragua salgai. "Compartimento estanco"arekin eta txaleko berezia, pala, "cubrebñera" eta kotxean eramateko barrak prezio barruan. Prezioa 50.000 pta. Interesatuak deitu 943 77 01 74 telefonora.
- ◆ Ingeleseko klase partikularrak ematen dira. Maila guztiak. Tfnoa: 943 79 78 35.

Lan deialdi publikoak

- ◆ Hernaniko Udalak **administrazio orokorreko teknikaria** behar du. Aurkezteko epea BOEn argitaratzeko zain.
- ◆ Hondarribiako Udalak **udaltzain hiru** lanpostu bete behar ditu. Aurkezteko epea: 99/10/8.
- ◆ Osasunbideak sei fisioterapeuta, reumatologoa, anatomia patologikoaren espezialitateko medikua eta psikiatra behar ditu. Aurkezteko epea: 99/10/10.

Langaiko lan eskaintza

- ◆ Deba Garaian dagoen enpresa batek **zumalanak egiteko langilea** behar du. Eref: 23504/3.
- ◆ Urola Kostan dagoen enpresak, **makinak pintatzeko langilea** behar du. Erref: 23817/4
- ◆ Arabako lautadan dagoen enpresa batek **3 aseguru saltzaile** behar ditu. Erref: 23644/1.
- ◆ Donostialdean dagoen enpresak, **CNC fresatzailea** behar du. Erref: 23671/5.
- ◆ Durango inguruan dagoen enpresak **informatika teknikaria** behar du. Erref: 22954/3.

DENETIK

- ◆ Garajea salgai Murubide auzoan, lehenengo solairuan. Tfnoa: 943 79 32 73.
- ◆ Volkswagen Comby furgoneta salgai. Guztiz ekipatuta. Tfnoa: 943 71 49 15, 21:00etatik aurrera.
- ◆ Datorren ikasturtean arratsaldez alemaneko klaseak emateko irakaslea behar da. Tfnoa: 943 79 00 69, 15:00etatik 18:00etara
- ◆ Txakurra eramateko remolke berri berria salgai. Deitu 943 77 05 75 telefonora.
- ◆ Pisua hartuko nuke alokairuan Aretxabaletan. Tfnoa: 943 78 14 57 edo 945 25 97 84.
- ◆ Kanpindenda kanadiensea eta kotxe gainean eramateko PVCzko kaxa salgai. Tfnoa: 943 79 23 69.
- ◆ Urrezko zintzilikarioa galdu da. Inork aurkituko balu 943 77 17 42 telefonora deitu.
- ◆ Kawasaki GPC 400 salgai, egoera onean. Tfnoak: 943 73 18 72/73 12 82.

ETXE BIZITZA

- ◆ Lokal komertziala salgai edo alokagai dago Aretxabaletan, toki zentriko eta eguzkitsuan. Orain artean ileapaindegi eta edertze areto moduan funtzionatu du. Tfnoa: 943 77 12 70.
- ◆ Baserri zahar bat erosiko nuke berrizteko asmoz Deba Bailaran. Tfnoa: 649 67 19 14.
- ◆ 57 m²ko garajea salgai Errekabarren kalean. Tfnoa: 943 79 74 73.
- ◆ Etxe bat erosi nahi da Aretxabaletan. Tfnoa: 649 16 86 69.
- ◆ Etxea erosi nahi da Aretxabaletan. Tfnoa: 943 79 61 68.
- ◆ Etxea salgai Aretxabaletan. 72 m², zentrikoa eta berriztua. Garaiea aukeran. Tfnoa: 943 770227.

SUNZUE S.A.
FELIX PAGALDAY
 Laborantza tresnak
 Ongarriak- Haziak
 Mitarte, 7 behe
 ☎ 943 77 00 33/79 42 56

Frutan eta txarkuterian
 espezialitatea
Angelines
 AUTOZERBITZUA
 Mitarte, 16 • 943 79 61 42

CONSUM EROSKI
 Orain arrandegi
 eta okindegiaz, zatoz!
 Mitarte kalea z/g 943 79 92 11
 ARETXABALETA

Boletus aereus



Ekaitzaren ostean, barealdia dator. Udazkeneko barealdia somatzen da jada. Aurtengo Marituak atzean gelditu dira. Kilometroetako festak ere agur esan digu aurtengoz. Horrenbestez zer gelditzen zaigu? Udazkeneko barealdia. Gure buruari kontuak eskatzeko garaia eta perretxikutan joateko sasoa. Udazkeneko egun tristeak alaitzeko, ontto tortila batzuk errezetatuko dizkiot neure buruari. Lelokeria dirudien arren, batek baino gehiagok dastatu nahiko luke MJren errezeta hau.

Azken hamabost egunetan, perretxikuak bezala, kontu dexente heldu da nire eskuetara. Orain, perretxikuekin bezala, kontu hauek zuritzeko ordua iritsi zait. Batetik, Atxabaltako ajedrez taldeko partaide diren hiru lagun, berriz ere albiste ditugu. Izan ere, Mutrikuko Euskal Presoak Euskal Herrira pla-


taformak antolatutako ajedrez txapelketan, atxabaltarrak izan baitziren garaile. **Andoni Miguel** izan zen garailea, **Fran Miguelek**, berriz, bigarren postua eskuratu zuen eta **Aitor Alkaidek** laugarrenarekin konformatu behar izan zuen. Podiuma hiru atxabaltarrek lortzear egon zen. Zalantzarik gabe ajedrezean ordezkari onak dauzkagu.

Zapatuan jubilatuen eguna ospatu zen. Bertan gizonezko jubilatua zaharrenari eta emakumezko zaharrenari opariak eman zitzaizkien. **Julian Elortzari** pixama eta manta bat oparitu zioten. **Juana Arran-zi**, berriz, soineko bat. Bazkal ondoren jubilatua dantzan aritu ziren eta gero sariak banatu ziren. **Jacinta Elorza Ortubai** Mallorcarako astebeteko bidaiaren saridun suertatu zen. Bazkaria, dantzak, sariak... hau guztia ikusita, argi dago jubilatuek primeran pasa zutela egun hau.

Jubilatuez gain herriko gazte baten idazlana ere saritua izan dela entzun dut. Hain zuzen **Oscar Ma-teok** "Villa Periana" izeneko lehiaketan lehenengo saria eskuratu zuen. Antza herrian uste baino artista gehiago dauzkagu. Idazle honi laguntzatxo bat eskatu beharko nioke atal honetarako. Nik txutxumutxuak kontatu eta berak, bere trebeziaz gauzak behar bezala kontatu ditzan. Gaurkoz akabo azken bi asteotan batutako perretxiku eta onttoak.

Arratsaldean Andarto aldera joango naiz. Datoren alerako perretxiku bila.

Liburutegiko txokoa



Harry Potter y la piedra filosofal

Egilea, J.K. Rowling
Emecé, 1999

Harry Potter 11 urteko umezurtza bere osaba maltzurarekin bizi da, bere gurasoak aztiak izan zirela eta magia eskola batean sartzeko aukera eskaintzen dioten arte. Eskolan hasi bezain laster abenturak bata bestearen atzetik etorriko dira, magia, intriga eta umorea ere tartekatzen dituen istorio honetan.

Rowlingek helduentzako idatzi zuen liburu hau, baina berehala haurrentzat ere egokia zela ikusi zuten eta lortutako arrakasta ikusita abentura berriak idazteari ekin zion. Hau da gaztekeraz argitaratu den lehena eta gehiago ere aterako dira, Potterrek bere ikasketak amaitu artean. Zoritzarrez ez dago euskarazko bertsiorik.

Hamar urtetik aurrera irakurri daitekeen liburu duzue hau eta helduek ere gustora irakurtzeko modukoa.

Joseba Lopez de Armentia

urria
7
eguna

HITZALDIA

Mitzel Sarasketa, Euskal preso ohia, 20 urte kartzelan izenburupeko hitzaldia izango da arratsaldeko 7:30ean Udaletxe zaharreko lehenengo solairuan. Jon Sarasuak zuzenduta.

7-10

UNICEFen ERAKUSKETA

“Eman Iritzia. Baina lehenago informa zaitez” izeneko erakusketa jarri du ikusgai UNICEFek Bergarako udaletxeko pleno aretoan. Erakusketa hilaren 10era bitartean egongo da ikusgai arratsaldez.

16
zapatua

URBALTZ ELKARTEKO BATZAR OROKORRA

Urteroko Batzarra, arratsaldeko 4retan ospatuko da Urbaltz elkartearen. Gabean afaria egongo da, izen emateko 14a baino lehen.

52,53,56 ETA 57 URTEETAN JAIOTAKOEN KINTADA

Hilaren 16an, 1952ko maiatza eta 53ko ekainaren artean eta 1956 eta 1957 urtean jaiotako kintoko afaria egingo dute Taberna Berri jatetxean. Izena jatetxean bertan emango da urriaren 15a baino lehen.

17
domeka

NAFARROA OINEZ

Nafarroa Oinezera autobusez joateko txartelak salgai daude Loramendin. Interesatuak Loramenditik pasa daitezke

24

PRODUKTU


ERREGIONALEN EGUNA

Egun osoan zehar Galizia, Extremadura, Andaluzia...ko produktuak dastatzeko aukera izango da



GARBITU S. KOOP
Garbiketa orokorrak
Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 943 79 01 28

**T
X
i
L
A
R
R
A**



ELIKADURA BEREZIA
Durana, 35
Tfnoa: 943 79 10 15
Loramendi, 9
Tfnoa: 943 79 44 28
ARETXABALETA

Jauregi Okindegia
Otalora, 10
Tfnoa: 943 79 57 47
Aretxabaleta

GARBITU S. COOP.
Garbiketa orokorrak
Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 943 79 01 28

Aldi bi
943 71 20 02

ITURGINTZA
J.J
Jose Jabier Irure
URA, GASA ETA KALEFAZIOA
Tfnoa: 943 79 07 34
943 79 31 87

Lie
Lurrindegia Opari-denda
Mitarte, 18 ☐ 79 38 59

ikastaroak

ESKULANAK, EGUR TAILA eta PINTURA

Udalak urtero gisa, eskulanetako 9 ikastaro, egur tailako 2 eta pinturako beste bi ikastaro antolatu ditu. Eskulanei dagokienez, bainika, richelieu, brodatu ingelesa eta beste hainbat josteko era landuko dira. Egur tailaren kasuan, egur dekorazioa, pintura eta dekorazio marmolina beste batzuren artean eta pinturari dagokionez oleoa landuko da. Ikastaroetako taldeak hamahiru pertsonakoak izango dira. Egunak eta ordutegia taldeen arabera zehaztuko da. Izena emateko epea dagoeneko zabalik dago. Interesatuak Kultur Etxetik pasa daitezke goizeko 11:00etatik 13:00 bitartean.

lehiaketak

EUSKAL ESAKERA BARRIAK

Bermeoko Udaleko Gazte Informazio Zerbitzuak eta Euskara Zerbitzuak, Euskal esakera barrien lehiaketa antolatu du. Lehiaketa honek, gazte jendeak erabiltzen dituen esakera berriak batu eta ezagutzera ematea du helburu. Lehiaketan nahi beste esakera aurkez daitezke Bermeoko Gazte Informazio Zerbitzuan edo Euskara Zerbitzuan. urria eta azaroa bitartean



BEHARREZKO TELEFONOAK

Aretxabaleta

- Almen 943 71 49 07
- Aretxagazeta 943 79 86 21
- Basotxo 943 77 09 81
- Euskaltegia 943 79 21 68
- Gizarte-Laguntzailea 943 79 10 00
- Hezibide Elkarte 934 79 31 32
- Industrialdea 943 79 62 80
- Institutua 943 79 79 00
- Kiroletxea 943 79 64 61
- Kultur-Etxea 943 79 01 05
- Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49
- Kurtzebarri B.H.I. 943 79 57 40
- Liburutegia 943 79 10 00
- Loramendi E.E. 943 77 09 70
- Ludoteka 943 79 05 81
- Murrukixo M.E. 943 79 93 74
- Musika Eskola 943 79 36 50
- Ortzadar 943 79 01 84
- Osasun zentroa 943 79 74 58
- Otalora 943 71 24 06
- Parrokia (Bulegoa) 943 79 18 42
- Pausoka Haur-Esk. 943 77 03 77
- Postetxea 943 79 28 31
- Santa Rita Ikastetxea 943 79 17 00
- Saretxo 943 71 26 56
- Taxi Geltokia 943 79 22 33
- Udal Bulegoak 943 79 10 00
- Udaltzaingoa 943 79 10 52
- Urats Gain 943 79 99 11

Udaltzaingoa

- Arrasate 943 79 14 39
- Bergara 943 77 91 06
- Eskoriatza 943 71 44 07
- Oñati 943 78 04 11

Larrialdiak

- SOS Deiak 112
- Eskualde-Ospitalea (Arrasate) 943 03 53 00
- Ertzaintza 943 79 71 99
- Gurutze-Gorria 943 76 55 76
- Larrialdiak 943 46 11 11
- Suhiltzaileak (Oñati) 943 78 28 00

Garraioak

- Pesa 902 10 12 10
- Renfe (Gasteiz) 945 23 02 02
- Renfe (Zumarraga) 943 72 15 15

Auzoz auzoko ibilbidea eta emisio zabalagoa



Bihar eta pasaden astean egin bezala, telebistan Atxabalta ezagutzen saioaren barruan auzoak ezagutzeko asmoz hauen inguruko saio berezia eskainiko dute telebistako kideek joandako eguakotxean Asatza auzoarekin egin bezala.


Horrez guztiaz gain,

errepikapenekin ere hasiko da telebista, emisio orduak gehituz.

Martizeneko emisioari dagokionez, informatiboa zortzietan, zortzi eta erdietan eta bederatzietan eskainiko da.

Eguakotxetan, aldiz, arratsaldeko zortzietan eta gero bederatzietan ikusi ahal izango ditugu berriak.

	MARTIZENA	EGUAKOTXA
20:00	ALBISTEAK Atxabaltako albistek Gai orokorra Eguraldia	ALBISTEAK Atxabaltako albistek Gai orokorra Eguraldia
20:20	KIROLAK	AGENDA
20:30		ATXABALTA EZAGUTZEN



Urkulu komertzioak 11 urte egin ditu Aretxabaletan eta baita Juan Luis Zubizarreta bertako arduradunak ere. Jaiotzez eskoriatzarra da, baina gaur egun hemen bizi da. Dendan arduradun lanak egiteaz gain, komertzial ere aritzen da. Lan horrek konstantzia handia eskatzen du bere iritziz.

- Noiztik dago Urkulu denda? 1988. urtetik.
- Zer eskaintzen du Urkuluk? Industria eta eraikitze lanetarako materiala saltzen dugu.
- Zenbatek lan egiten duzue bertan? Hiruk, bi eskoriatzar eta arrasatearra

“Komertzial lanetan oso konstantea izan behar da”

besteak.

- **Zure lana zein da konkretuki?**
Arduraduna naiz eta komertzial lanak ere neuk egiten ditut.
- **Komertzial lana esan duzu.**
Bai, oso konstantea izatea eskatzen du lan honek. Bertan behera uzteko lan oso samurra da. Borondate handia behar da, askotan ordutegirik ez duzulako.
- **Zergatik merezi du komertzial lanak?**

Jende asko ezagutzen duzu, lagun asko egiten dituzu... Alde horretatik oso aberasgarria da, jendeaz tratatu asko izaten duzulako.

- **Zaila da horrelako enpresa bat aurrera ateratzea?**

Sortzea baino gogorragoa da mantentzea.

- **Gaur egun zer komeni da, espezializatzea edo denetik izatea?**

Nik garbi daukat espezializatzea dela egokiena.

- **Eskoriatzarra zaitugu eta Aretxabaletan bizi, zer nahiago duzu?**

Eskoriatzarra izanda nik neure herria nahiago dut, dena dela, Aretxabaletan oso gustora nago.

- **Dendari izan ez bazina zer izatea gustatuko litzazuke?**

Agian maixu, horretarako ikasi nuen eta.

- **Irakasle lanetan inoiz aritu zara?**
Ez, karrera bukatu, soldaduzka egin eta gero hemen hasi nintzen lanean.
- **Ikasle ona zinen?**
Normaletarikoa.
- **Ezkondua?**
Bai.
- **Seme-alabarik?**
Bai, zazpi urteko mutiko bat.
- **Aita izatea edo dendako lana da zailagoa?**

Dendakoa nik uste dut.

- **Zer egiten duzu denbora librean?**

Mendira joan eta lagun edo familiarakoekin egon.

- **Non iriteten duzu?**

Gehien Eskoriatzan baina Aretxabaletan ere bai.

- **Mendi bat esatekotan?**

Uff... asko baina bat Aratz, oso polita da.

- **Eta Pirineotako mendi bat?**

Balivierna, Aneto ondoan dago.

- **Afal ostean zer egiten duzu?**

Irakurri.

- **Zein da irakurri duzun azken liburua?**

“La otra cara de Garzón” Pepe Rey-rena.

- **Eta bukatzeko Juan Luis optimista ala pesimista zaitugu?**

Optimista.

KOMIKIA

BALIBARRUK (Hikaz berbetan)



Mikel Arroiabe

TABERNA eta JATETXEEN GIDA

Zaraia taberna

**MANTEKA
ANAIK**

*Goizeko 5,30etatik
zure zerbitzura*

Araba Ibilbidea, 20 • 943 79 88 95

Haizea taberna



Mitarte, z/g • ARETXABALETA
Tfnoa: 943 79 85 57

Artano taberna

Herriko
plazan
ARTANO

Girorik onena

Herriko plaza, 3 • 943 79 62 75

Gurea taberna

Jatetxea eta
taberna

GUREA

Eguneko menuak

Durana kalea • 943 79 20 64

Basabe jatetxea

Menu eta
afariak

**BASABE
JATETXEA**

Basabe poligonoa • 943 79 91 84

Arlutz taberna



Gustoko musika

Mitarte, 16 • ARETXABALETA
Tfnoa: 943 79 32 34

Ezkutu taberna



Mitarte, 9 • 943 79 92 01

Goyaran erretegia



GOYARAN ERRETEGIA
• Pasaia espezialitatea

Solohaundi-8 ARETXABALETA
943 79 68 57

Mendiola erretegia



◆ *Bazkari
eta afariak*

*Astelehenetan
itxita*

Mendiola auzoa • Eskoriatza

Baster alde jatetxea



**Sasoiko
jakiak
giro
onenean**

Galartza auzoa
943 79 24 58
ARETXABALETA


Dorleta taberna

Dorleta

Bezeroen zerbitzura

Loramendi 8 • ARETXABALETA
943 79 94 15

Mitartegarai



Arientza auzoa
Aretxabaleta
Tfnoa: 943 79 17 51



Josu harategia

- Urdaitegia-gozotegia
- Kroasantegia
- Gertatutako janariak

Josu harategia

Mitarte, 1 • ARETXABALETA
Tfnoa: 943 77 03 08

Taberna Berri



Durana, 26 • ARETXABALETA
943 79 20 67

Urbaltz taberna



Mitarte, 21 behea
Tfnoa: 79 79 79
ARETXABALETA

sofa
leku

a. eme... interiores



centro
hogar
muebles

grupo



Amuebladora Mondragonesa

a. eme. interiores, Garibai, 9 ■ ARRASATE ■ Tel.: 943 79 15 03

a. eme. sukaldeak, Zigorrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tel.: 943 77 14 92

centro hogar muebles, Zigorrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tel.: 943 77 14 92

sofa leku, Zigorrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tel.: 943 77 14 92